

EUSKALERRIAN BAI, ABERTZALEAK EZ

Abertzaletasunean eta geure erriaren eskubide guztiak zaintzean, gure aberriak aurrera egin nai dau eta orretara-ko burruka sendoak egiten dira.

Baiña ondo dakigu, gure artean asko dirala kanpotik etorriak eta bertokoak izanik (au lotsagarria) aberriaren eta izkuntzaren aurka dagozanak.

Olakoi min emoten dautse aberriaren alde egiten dan danak eta eurak beti dagoz Madrid'era begira.

Jokabide orreik bizitasun berezia artu dabe aspaldion eta ortik sortu da Araba'ko U.A. alderdia. Bilbao'n be antzeko zerbait sortu dala diñoe.

Arabarren artean sarritan zomau dogu olako jokabidea. Zergaitik dan?

Errazoi bat, neure ustez, euskerea galdu izatea da. Gero, esan dagien euskereak ez daukala abertzaletasua-gaz zer-ikusirik!

Euskerea ez dakielako arabarrak lotsa-antzeko bat dauke eta ortik sortzen dira euren esaldiak: Zuek nortzuk zaree gu euskera ikastera beartzeko? Euskerea ez jakin arren, zuen besteko euskaldunak ba-gara!

Gure erantzuna erreza izaten da: Baiña nork edo noz beartu zaitue euskerea ikastera? Edo nok esan dau euske-rea dakigulako zuek baiño euskaldunagoak garala?

Arabarrak, gaiñera, Euskadi'ren aldetik begirun aundia izan dabe, bear ba'da olako zerbait sortu daitekela uste izanik: Lege-Batzarrean, esaterako, eurak biztanlez asko gitxiago izan arren, beste eskualdeen beste ordezkari edo aldun daukez, eta Euskadi'ren Uriburua be bertan jarria da.

Baiña ori be ez dabe aintzat artzen. Barru-miña dagoa-nean, dana izaten da alperrik.

Antzeko zioakaitik alde egin eban Naparroa'k Jabetzadun Eusko Alkartetik.

Eta zer egin olako jokabideen aurrean?

Lenengo ta bein, abertzaletasun-bidean ez dogu atze -

rarik egin bear, eta ez euskerea zabaltzeko ta indartzeko alegiñetan be.

Baiña bai, bear ba'da, apur bat kontuz ibilli. Euskerea zabalduta ez dagon lurraldeetan, ez euskera utsa erabilli, itzaltasuna izan. Sarritan larregi be bigunak izaten gara, baiña ez beti.

Dana dala, arlo onetan neurri egokiz jokatzeta ez da gauza erreza. Ez da aitzu bear euren barru-miñak be arazoa ozpindu egiten dauala.

Gai onegaz arduratuta agertu jakun Lendakaria EUS-KERAZAINTZA'ren izenean egin geuntzan ikustaldian.

Or daukagu, esaterako, lan-lekuak lege-giroko erakundeetan lortzeko, euskera jakitea eskatzea.

Guk ori ondo dagoala argi ikusten dogu eta geure eskubide bat da, gu euskaldun garanok, olako tokietan euskeraz berba egiteko eskubidea, baiña esandako jokabide orretara sartuta dagozanak ez dabe orrelan ikusten arazoa.

Guk geure eskubideak zaindu bear doguz, baiña bear dan bidea artu dagigun, al dala olakoak mindu barik izan daiten: Ez da gauza erreza!

Elebitasunaren arazoa be or sartzen jaku.

Batzar bat egiten dogunean eta eskubide osoagaz batzar orretara euskera ez dakienak etorten diranean, euskaldunak egoera onean gagoz, euskerea ta erdera ulertzen doguzalako, baiña eurak euskera egiten dogunean alboratuta ikusten dabe euren burua.

Gai geldiak diranean euskerea ta erdere banatzen doguz, baiña alkar-izketa eltzen danean, orduan jotzen da geiago erderara eta orrelan izan ezik, erdeldunak alboratuta sentitzen dira ulertzen ez dabelako. Eta eztabaida bero baten ez da erreza dana euskeratzea.

Egia esan, eurak be ez dabe alegin aundirik egiten, sarritan, euskerea ikasteko.